

ARAUDIA BETETZEA ETA TALDE KONTROLA

Salaketen kanal etikoaren funtzionamendurako
eta kudeaketarako prozedura



GOBERNU ORGANOEI AURKEZTEA

Kutxabankeko Auditoria eta Betetze Batzordeari, 2020ko apirilaren 28an
Kutxabankeko Administrazio Kontseiluari, 2020ko apirilaren 30ean

Aldaketen kontrola

SALAKETEN KANAL ETIKOAREN FUNTZIONAMENDURAKO ETA KUDEAKETARAKO PROZEDURA	
V01.2020 bertsioa	
Arduraduna	Araudia Betetzea eta Talde Kontrola

Data	Onetsi duen organoa	Bertsioa	Aldaketak
2019/09/05	Kutxabaneko Administrazio Kontseilua	V01.2019	Sorrera
2020/04/30	Kutxabaneko Administrazio Kontseilua	V01.2020	Honako gaietako buruzko atalak gehitzea: <ul style="list-style-type: none">- Eragiketen erregistroarekin eta finantza arloko informazioaren prestaketarekin zerikusia daukaten kontsultak egin eta salatzeko moduko egitateak komunikatzeko aukera.- Kontsultak eta salatzeko moduko egitateen jakinarazpenak erregistratzeko sistema.- Inplikaturako alorren funtzioak

AURKIBIDEA

1.	Sarrera	4
2.	Salaketen barneko kanal etikoa.....	5
2.1.	Salaketen kanal etikoa arautzen duten printzipioak	5
2.2.	Salatzeko moduko egitateak eta jokabideak.....	5
2.3.	Kontsulta bat egiteko edo ez-betetze baten berri emateko prozedura.....	7
2.4.	Jarduteko prozedura: aurkeztutako kontsultak eta salaketak jasotzea, ikertzea eta ebaztea ...	8
2.5.	Aurkeztutako kontsulten eta salaketen erregistroa.....	10
3.	Salaketen kanpoko kanal etikoa	11
3.1.	Kanpoko kanal etikoa arautzen duten printzipioak	11
3.2.	Salatzeko moduko egitateak eta jokabideak eta horien berri emateko prozedura	11
3.3.	Jarduteko prozedura: aurkeztutako salaketak jasotzea, ikertzea eta ebaztea	12
4.	Prozeduratik eratorritako erantzukizunak.....	14
4.1.	Administrazio Kontseilua	14
4.2.	Goi Zuzendaritza	14
4.3.	Betetzeko funtzioa.....	14
4.4.	Barne Auditoria.....	15
4.5.	Giza Baliabideak.....	15
4.6.	Diziplina Batzordea	15
4.7.	Aholkularitza Juridikoa.....	15
5.	Prozedura kudeatzea	16
5.1.	Prestatzea eta kudeatzea	16
5.2.	Indarrean sartzea	16
5.3.	Argitaratzea.....	16

1. Sarrera

Honako dokumentu honetan Kutxabanken salaketen barneko kanala eta salaketen kanpoko kanala arautuko dituzten printzipioak eta prozedura finkatu dira, erakundean balioen aplikazioa sustatzeko xedearekin eta dilema etikoak nahiz hautemandako ez-betetzei buruzko jakinarazpenak ebazteko modua egituratzeko xedearekin.

Profesionalek egoera edo kezka jakin batzuen berri modu irekian eta ondorio kaltegarrien beldurrik gabe ematea berebizikoa da Kutxabanken Jokabide Kodea behar bezala ezartzeko.

Entitateak bere profesionali eskatzen die kode hori edo barneko arau nahiz prozedurak betetzen ez diren aldiro horren berri eman dezatela, beraien betebeharra den aldetik. Izan ere, profesional guztiek beren gain daukate halako ez-betetzeengatik hasitako barne ikerketetan lankidetzak eskaintzeko konpromisoa.

Hirugarrenen ez-betetzeen edo ustez delitu zantzuak dituzten egitateen berri ematea informazio iturri bat ere bada Entitatearentzat, eta horrek kontrol berriak ezartzea eta bere funtzionamendurako prozedurak hobetzeko ekintzak abiaraztea ahalbidetuko dio Kutxabanki.

2. Salaketen barneko kanal etikoa

2.1. *Salaketen kanal etikoa arautzen duten printzipioak*

Langile batek jakinarazpen bat egiten badu arau edo barne prozedura bat ez dela bete nahiz kapital zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioaren arloko arauak edo datuen babesari buruzkoak ez direla bete adierazteko edo ustez delitu zantzuak dituen egitateren baten berri emateko, anonimotua bermatuko zaio. Horrekin batera, salatzailearen aurkako errepresalien debekua eta jakinarazitako informazioaren konfidentzialtasuna ere bermatuko dira.

2.1.1. *Anonimatua*

Hemen aurreikusitako gaietako buruzko salaketak anonimotasunez egin ahalko dira, jakinarazpena egingo duen pertsonak nahi izanez gero.

2.1.2. *Konfidentzialtasuna*

Kutxabankeko langileek egindako jakinarazpenen bidez jasotako informazioa objektibotasunez, inpartzialtasunez eta konfidentzialtasunez aztertuko da.

Informazio oro konfidentzialtasunez tratatuko da, betiere legeria nazionalak dioenari jarraituz zabaldu beharrekoa ez bada, ikerketa berrietarako edo ondorengo prozedura judizialerako.

2.1.3. *Errepresalien debekua*

Hemen aurreikusitakoarekin bat datozen egintzak edo jokabideak fede onez jakinarazten dituenak ez du horregatik errepresaliarik jasango, ezta bestelako ondorio kaltegarrikerik ere.

2.2. *Salatzeko moduko egitateak eta jokabideak*

Gaur egungo barne gobernuari buruzko arauetan, kapital zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioan, baloreen merkatuan, aseguruetan eta are Zigor Kodean bertan ere enpresek salaketa kanalak edukitzeko betebeharrari buruzko agindu zehatzak aurreikusten dira, beren jardueran ikusitako irregulartasunen berri emateko.

Jokabide Kodean bertan arautzen da salaketa kanal bat izatea betetze sistemaren alde funtsezko gisa, legezketasuna eta bertan ezarritako jokabide arauak betetzea sustatzeko eta zaintzeko asmoz; horretarako, kodeari lotutako pertsonen jakinarazpenak egiteko aukera ahalbidetuko zaie jarraian adierazitako balizko ez-betetzei buruz edo haren interpretazioari edo aplikazioari buruz sor daitezkeen zalantzak agertzeko.

Enpresek beren langileen eskura jarritako salaketa kanal bat edukitzeko betebeharrari buruzko aginduak jasotzen dituzte egungo arauak. Horregatik, jarraian, kontsulta eta/edo salaketaren xede izan daitezkeen gaiak deskribatzen dira, adibide gisa:

A. Barne gobernu

Salaketa kanal horren bidez salatu ahal izango dira erregelamenduari, barne prozedurei edo barne gobernuari buruzko ez-betetzeak.

Kanal honen bidez jakinarazteko modukoak izango dira, halaber, hautemandako interes gatazkak, betiere jakinarazpenaren egileari eragiten ez badiote.

Interes gatazka pertsonalak, aldiz, barne araudian horri buruz ezarritako prozedura espezifikoaren bidez jakinaraziko dira.

Balore Merkatuko Jokabidea Arautzeko Barne Erregelamenduari lotutako pertsonak, hor ezarritako aginduren bat urratu dela jakin badute, kanal honen bidez eman ahalko dute horren berri.

B. Kapital zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioa (KZT/TF)

Kanal honen bidez salatzeko modukoak izango dira gai honetako erregelamenduei, politikiei eta barne prozedurei buruzko ez-betetzeak.

Eragiketa bat KZT/TF ikuspegitik susmagarria bada, horren berri emateko Kapital Zuriketa eta Terrorismoaren Finantzaketa Prebenitzeko Eskuliburuan *ad hoc* ezarritako prozedura erabiliko da. Eskuliburu hori intranet korporatiboan argitaratu zen eta langile guztiek beren eskura daukate.

C. Datuak babestea

Entitateak, Jokabide Kodeari lotutako pertsonak edo beraiekin kontratua egiten duten hirugarrenen jardunak arauen aurkako egitate edo jokabideak dituztela ikusiz gero, honako kanalaren bidez salatu ahalko dira.

D. Inbertsio zerbitzuak (MiFID), banku zerbitzuak eta aseguruak

Kanal honen bidez jakinarazteko modukoa izango da Kutxabankek inbertsio zerbitzuak emateari buruz dauzkan arau, politika eta barne prozedurak urratzea, baita Balore Merkatuaren Legearen betekizunak urratzea ere.

Era berean, banku zerbitzuak emateari eta aseguruaren banaketari buruzko araudia eta barne prozedura ez betetzea ere salaketen kanal etikoaren bidez jakinarazteko modukoa izango da.

E. Eragiketa batean merkatu abusua dagoela susmatu badaiteke, horren berri ematea

Hirugarren batek, dela langilea dela bezeroa, finantza tresnen eta balore negoziagarrien gainean egindako eragiketa batek merkatu abusutzat jo daitekeen jardueraren bat berarekin dakarrela dakiten edo susmatzen duten langileek salaketen kanal etikoaren bidez jakinarazi ahalko dute.

F. Arrisku penala

Kanal honen bidez salatze modukoak izango dira, jardunbide desegokiak edo zigor arloan arau-hauste penala izan litezkeen jardunbideak, ustez jarduera ez-zilegi izateko zantzuak dituztenak, baita gai honi buruzko politikak, eskuliburuak eta barne prozedurak ez betetzea ere.

G. Finantza eta kontabilitate arloko informazioa

Langileren batek finantza eta kontabilitate arloetan irregulartasunen bat gertatu dela jakiten edo susmatzen badu, salaketan kanal etikoaren bidez salatu ahalko du.

2.3. Kontsulta bat egiteko edo ez-betetze baten berri emateko prozedura

Kutxabanke salaketan kanal etiko espezifikoa dauka bere profesionalek aukera izan dezaten aipatutako egitateak edo barne arau eta prozedurak betetzen ez badira horren berri emateko betebeharra betetzeko.

Kanal horrek funtzio bikoitza dauka, baliagarria izango baita, alde batetik, langileek kontsultak egiteko edo zalantzak agertzeko eta, bestetik, ez-betetzeen berri emateko. Bi jakinarazpen motak kanal berberaren bidez egingo dira eta inprimaki berbera erabiliko da, baina batean edo bestean jarraitu beharreko prozedurak desberdinak izango dira.

2.3.1. Inprimakia betetzea

Langileek eta Jokabide Kodeari lotuta dauden gainerakoek inprimaki bat dute eskura, eta kontsultak egiteko edo ez-betetzeen berri emateko hori bete behar dute.

Inprimaki hori Entitatearen intranet korporatiboan dago.

A. Kontsultak egitea

Kontsulta egin duen langileari erantzun ahal izateko, beharrezkoa izango da hark identifikazio datuak betetzea eta helbide elektronikoa bat adieraztea, komunikazio bide gisa erabiltzeko.

Jarraian, jakinarazpen hori Jokabide Kodean jasotako aginduei buruzko zalantza bat edo kontsulta bat egiteko dela adierazi behar da. Gero, labur-labur azalduko da planteatutako auzia, eta beharrezkotzat jotako agiriak gaineratuko dira, hala balegokio.

B. Ez-betetzeen berri ematea

Jakinazpen guztiei dagokienez, emandako informazioaren konfidentzialtasuna bermatuko da.

Ez-betetzeen berri ematen duenak, nahi izanez gero, bere burua identifikatuko du edo, bestela, anonimatuari eusteko eskubidea baliatu ahalko du, araudiek ezartzen duten bezala.

Bere burua identifikatu nahi izanez gero, jakinarazpenaren egileari buruzko identifikazio datuak bete beharko ditu eta harremanetarako bide bat adierazi beharko du. Horrela, salatzaileari informazio gehiago eskatu ahal izango zaio, beharrezkoa izanez gero. Jakinarazpena anonimotasunez aurkeztu nahi izanez gero, inprimakiaren atal hori ez da bete behar.

Zera adierazi beharko du jarraian, jakinarazpenaren xedea aurreko atalean jasotako eremuren bateko ez-betetzea salatzea dela. Horrekin batera, ez-betetzea zein eremutan atzeman den eta ez-betetzea egin duten langileen izenak zehaztu beharko ditu.

Azkenik, atzemandako ez-betetzea deskribatuko du, eta beharrezkotzat jotako agiriak gaineratuko dira.

2.3.2. *Kontsulta edo ez-betetzearen jakinarazpena bidaltzea*

Jakinarazpenaren egileak bere burua identifikatu nahi badu, honako bideak erabil ditzake bidaltzeko:

- **Mezu elektronikoa** honako helbidera:
canaletico@grupokutxabank.com
- **Barneko posta, Araudia Betetzeko alorreko Jokabide Korporatiboko unitateari:**
Kale nagusia 30, Baskonia eraikina, 4. solairua (Bilbo).

Jakinarazpenaren egileak anonimatuari eutsi nahi badio, barneko posta bidez egin dezake bidalketa, helbide berera, bidalketaren jatorria zehaztu gabe.

2.4. *Jarduteko prozedura: aurkeztutako kontsultak eta salaketak jasotzea, ikertzea eta ebaztea*

2.4.1. *Kontsultak eta salaketak jasotzea*

Araudia Betetzeko Funtzioak jaso eta izapidetuko ditu Jokabide Kodean jasotako alderdiekin zerikusia duten kontsultak edo agiri honetako "Salatzeko moduko egitateak eta jokabideak" atalean aipatutako eremu espezifikoetako ez-betetzei buruzko kontsultak eta salaketak.

Jokabide Kodearen eta honako dokumentuaren babesean egindako jakinarazpenen bidez jasotako informazio oro objektibotasunez, inpartzialtasunez eta konfidentzialtasunez aztertuko da.

Kontsultak bidaltzen direnean, hartu izana baieztatuko zaio igorleari.

Ez-betetze baten jakinarazpena jasotzen denean, hartu izanaren baieztapena bidaliko da, betiere salatzaileak informazioa jaso ahal izateko beharrezko datuak eman baditu.

2.4.2. *Aurretiko analisia*

Araudia Betetzeko alorrak erregistratu eta aztertuko ditu lehenbizi jasotako jakinarazpen guztiak. Bertan erabakiko da, zalantzen kasuan, izapidetu eta erantzuna emateko

bideratuak izan behar diren ala ikertzeko dagokien arlora bidali behar diren edo, bestela, baztertzekotzat jo behar diren.

Jasotako jakinarazpenak honako egoera hauetan baztertuko dira:

- Jasotako informazioa ez baldin badator bat salaketen kanal etikoaren aplikazio eremuarekin.
- Jasotako informazioa ikerketa abiarazteko nahikoa ez baldin bada, eta salatzaileak ez badu bere burua identifikatu edo ez badu zehaztu informazio gehiago lortzea ahalbidetuko lukeen harremanetarako biderik.

Jakinarazpen bat baztertzeko denean, erabaki hori hartzeko arrazoiak dokumentatu eta erregistratu egingo dira.

Kontsulta bat planteatzeko egindako jakinarazpenak Araudia Betetzeko, Barne Auditoriako eta Giza Baliabideetako alorrek batera aztertuko dituzte, 5.4 A) atalean zehaztu den bezala.

Ez-betetzeei buruzko jakinarazpenak, aldiz, Barne Auditoriako alorrera bidaliko dira ikertzeko eta, era berean, Giza Baliabideen alorrari horren berri emango zaio.

2.4.3. Ikertzeko fasea

Jakinarazitako salaketen kasuan, Barne Auditoriak egitate horiek ikertzeko fasea hasiko da. Barne Auditoriak, ikerketarako eta barneko kontrolerako dituen ahalmenak baliatuz, jasotako informazioa kontuan hartuta egin ditzakeen eta beharrezkoak diren probak eta berrikuspenak egingo ditu barne arau eta prozedurak bete ote diren edo, alderantziz, urratu egin ote diren egiaztatzeko. Ikerketaren ondorioak horretarako berariaz prestatutako txostenean gaineratuko ditu.

2.4.4. Ebazpena

A. Kontsultak eta ez-betetzeen zein barneko araudiari buruzko salaketak:

Araudia Betetzeko alorrak, Barne Auditoriakoak eta Giza Baliabideenak osatutako batzordeak ebatzi eta interpretatuko du planteatutako auzia, eta planteatutako kasurako erantzun bateratu eta loteslea emango du.

B. Ustez delitu zantzuak dituen egitate baten salaketa

Diziplina Batzordeak diziplina espediente baten harira egindako analisisan susmatzen bada langileen, bezeroen edo kanpoko hirugarrenen egitateetan ustez delituak egin dituzten zantzuak daudela, edo nahitaez bete beharreko bestelako lege arauen bat urratu dela, egitate horiek eta eskuratu den dokumentazio oro ahalik eta lasterren helaraziko zaio Aholkularitza Juridikoari. Aholkularitza Juridikoak egitateak aztertuko ditu eta Entitatearen barnean alor hori arduratuko da, dagozkion eskuduntzak baliatuz, ekintza penalak edo arlo zibil edo administratiboko beste edozein gauzatzeaz bidezkoa den kasuetan, Kutxabanken izenean eta hura ordezkatzuz, horretarako oinarritzat hartuta

legezkotasun, arrazoizkotasun eta inpartzialtasun irizpideak eta zantzuen nahikotasuna eta frogabidea.

2.4.5. Ebazpena jakinaraztea

Kontsultak eta zalantzak planteatzerakoan langileak bere burua identifikatu eta komunikatzeko bide gisa helbide elektronikoa adierazi badu, ebazpena posta elektronikoz bidaliko zaio.

Ez-betetzea jakinarazi duenak bere burua identifikatu badu, jakinarazpen baten bidez adieraziko zaio berak bidalitako jakinarazpena artxibatua, baztertua edo ikertzeko izapidetua izan den.

2.5. Aurkeztutako kontsulten eta salaketen erregistroa

Araudia Betetzeko Funtzioak salaketen kanal etikora iristen diren kontsulta eta salatutako egitatei buruzko jakinarazpen guztien erregistro anonimizatua osatuko du.

Kontsulten erregistroan jasotako jakinarazpenen kopia ez ezik, kontsultaren egileari bidalitako erantzunak ere gordeko dira.

3. Salaketen kanpoko kanal etikoa

3.1. *Kanpoko kanal etikoa arautzen duten printzipioak*

Hirugarren batek ustez delitu zantzuak dituen egitate baten berri badu eta salatzeo jakinarazpena egiten badu, anonimataua bermatuko zaio. Jakinarazitako informazioaren konfidentzialtasuna ere bermatuta egongo da.

3.1.1. *Anonimatua*

Ustez delitu zantzuak dituzten egitateen gaineko salaketak anonimotasunez egin ahalko dira, jakinarazpenaren egileak hala nahi badu.

3.1.2. *Konfidentzialtasuna*

Jakinarazpenen bidez jasotako informazioa objektibotasunez, inpartzialtasunez eta konfidentzialtasunez aztertuko da.

Jakinarazitako informazio oro konfidentzialtasunez tratatuko da, betiere legeria nazionalak dioenari jarraituz zabaldu beharrekoa ez bada, ikerketa berrietarako edo ondorengo prozedura judizialeterako.

3.2. *Salatzeko moduko egitateak eta jokabideak eta horien berri emateko prozedura*

3.2.1. *Salatzeko moduko egitateak*

Kanpoko salaketen kanalaren bidez, erakundeak edo bere langileek, zuzendaritza taldeak edo erakundearekin harreman komertziala dutenek edo hari zerbitzua ematen diotenen egindako egitateak jakinarazi ahalko dira soil-soilik, ustez delitu izan daitezkeen zantzuak badaude.

3.2.2. *Horien berri emateko prozedura*

A. *Inprimakia betetzea*

Ustez delitu zantzuak daudelako egitate baten berri eman nahi duenak bere eskura dauka inprimaki bat. Inprimaki hori bete behar da ez-betetzeen berri emateko.

Inprimakia erakundearen webgune korporatiboan argitaratuta dago.

Jakinarazpen guztiei dagokienez, emandako informazioaren konfidentzialtasuna bermatuko da.

Ez-betetzeen berri ematen duenak, nahi izanez gero, bere burua identifikatuko du edo, bestela, anonimatuari eusteko eskubidea baliatu ahalko du, araudiek ezartzen duten bezala.

Bere burua identifikatu nahi izanez gero, jakinarazpenaren egileari buruzko identifikazio datuak bete beharko ditu eta harremanetarako bide bat adierazi beharko du. Horrela, salatzaileari informazio gehiago eskatu ahal izango zaio, beharrezkoa izanez gero. Jakinarazpena anonimotasunez aurkeztu nahi izanez gero, inprimakiaren atal hori ez du bete behar.

Ez-betetzea zer arlotan antzeman den zehaztu behar du, baita ez-betetzea egin duten langileen izen-abizenak ere, horren berri izanez gero.

Azkenik, antzemandako ez-betetzea deskribatuko du, eta egokitzat jotako dokumentuak gaineratuko ditu, halakorik balego.

B. Ustez delitu zantzuak dituen egitateari buruzko jakinarazpenak bidaltzea

Jakinarazpenak egiteko bidea hauxe izango da:

- **Posta zerbitzua**, Araudia Betetzeko alorreko Jokabide Korporatiboaren unitateari zuzenduta: Kale nagusia 30, Baskonia eraikina, 4. solairua (Bilbo).

3.3. *Jarduteko prozedura: aurkeztutako salaketak jasotzea, ikertzea eta ebaztea*

3.3.1. *Salaketak jasotzea*

Araudia Betetzeko Funtzioa arduratuko da ustez delitu zantzuak dituzten egitateei buruz bidali dizkieten salaketak jaso eta izapidetzeaz.

Hartu izana baieztatuko da, betiere salaketa egin duenak informazioa jasotzeko beharrezkoak diren datuak adierazi baditu.

3.3.2. *Aurretiko analisia*

Jasotako jakinarazpen guztiak Araudia Betetzeko alorrak erregistratu eta aztertuko ditu lehenik. Bertan erabakiko da izapidetu eta dagokion alorrera bidali behar ote diren ikertzeko, edo baztertu beharrekoak diren.

Jasotako jakinarazpenak honako egoeretan baztertuko dira:

- Jasotako informazioaren arabera, ez baldin bada salaketen kanpoko kanal etikoaren aplikazio eremuarekin bat datorren ustez delitu zantzuak dituen egitate bat.
- Jasotako informazioa ez baldin bada nahikoa ikerketa abiarazteko eta salatzaileak ez badu bere burua identifikatu edo ez badu zehaztu harremanetarako biderik informazio gehiago lortu ahal izateko.

Jakinarazpen bat baztertzen denean, erabaki hori hartzeko arrazoiak dokumentatu eta erregistratuko dira.

Ez-betetzeei buruzko jakinarazpenak Barne Auditoriako alorrera bidaliko dira ikertzeko eta Giza Baliabideen alorrari ere horren berri emango zaio.

3.3.3. Ikertzeko fasea

Jakinarazitako salaketen kasuan, Barne Auditoriak egitate horiek ikertzeko fasea hasiko da. Barne Auditoriak, ikerketarako eta barneko kontrolerako dituen ahalmenak baliatuz, jasotako informazioa kontuan hartuta egin ditzakeen eta beharrezkoak diren probak eta berrikuspenak egingo ditu barne arau eta prozedurak bete ote diren edo, alderantziz, urratu egin ote diren egiaztatzeko. Ikerketaren ondorioak horretarako berariaz prestatutako txostenean gaineratuko ditu.

Salatutako egitateen ondorioz, edo ikerketaren ondorioz, diziplina espedientea abiatu beharko balitz, zeregin horretaz Giza Baliabideen alorra arduratuko da, eta zehapen proposamena helaraziko dio, hala balegokio, Diziplina Batzordeari.

3.3.4. Ebazpena

Diziplina Batzordeak Giza Baliabideek egindako zehapen proposamena eta txostenak aztertu eta bere irizpena emango du, dagozkion lan arloko zehapenak ezarri behar diren ala ez erabakitzeko.

Bestalde, salatutako egitateetan kanpoko arauren baten balizko ez-betetzea gertatzen bada, Aholkularitza Juridikoari helarazi behar zaio. Hartara, alor horrek, hala balegokio, bere eskuduntzen esparruan, salaketa prozedurak abiaraziko ditu egindakoak izan litezkeen erantzukizun zibil, administratibo eta/edo penalengatik.

3.3.5. Ebazpena jakinaraztea

Ez-betetze baten berri eman duenak bere burua identifikatu badu, jakinarazpen baten bidez adieraziko zaio bere jakinarazpena artxibatu, baztertu edo ikertzeko izapidetu den.

3.4. Aurkeztutako kontsulten eta salaketen erregistroa

Betetze Funtzioak erregistro anonimizatu batean gordeko ditu salaketen kanal etikora iritsi diren egitate salagarriei buruzko jakinarazpen guztiak.

4. Prozeduratik eratorritako erantzukizunak

4.1. *Administrazio Kontseilua*

Kutxabankeko Administrazio Kontseiluari dagokio, erakundearen gobernu organoa den aldetik, honako agiria onestea, baita bertan egin beharreko aldaketak edo berrikuspenera ere.

4.2. *Goi Zuzendaritza*

Goi Zuzendaritzari dagokio salaketen kanala ondo ezartzen dela bermatzea, baita haren erabilera sustatzea ere, egitateak edo jokabideak salatzeko arau-hauste penal izan daitezkeen susmoak badaude, betiere kaltegabetasuna eta konfidentziasuna bermatuta fede onez salatu duenari, baita delitu jardunetan parte hartzeari uko egin dioten horiei ere.

4.3. *Betetzeko funtzioa*

Kutxabanken Betetzeko Esparru Korporatibo Orokorra garatzea, ezartzea eta gauzatzea Araudia Betetzeko eta Taldea Kontrolatzeko alorrari dagokio. Beste antolamendu unitate batzuek ere harekin lankidetzan jarduten dute esparru hori gauzatzean, eragiketa edo espezializazio arazoak direla eta organikoki haren parte ez izan arren.

Horrexegatik, langile guztien eskura jarritako salaketen kanal etikoari dagokionez, Araudia Betetzeko Funtzioari dagozkio honakoak:

- Jokabide Kodea hedatzea, ezagutzea eta betetzea sustatzea eta bera interpretatzea, laguntza alorrekin batera, sor daitezkeen kontsultak ebazterakoan.
- Salaketen kanal etikoaren bidez kontsultak eta salaketak jasotzea.
- Ez-betetzeei buruzko salaketak izapidetzea, barne instrukziorako eta ikerketarako izendatutako alorretara bidaliz.
- Planteatutako kontsultak ebazteko aholkua ematea.
- Kanal horren bidez kontsultak egin dituztenei erantzutea.
- Aholkularitza Juridikoari helaraztea arauen ez-betetzeak agertzen dituzten jokabideekin zerikusia duten egitateak, horien egileek, Entitatearen langile izan ez arren, haren izenean funtzioak eta jarduerak gauzatzean egin badituzte.
- Jokabide Kodearen testuan txertatzea komeni diren aldaketak urtero ebaluatzea, batez ere, arautu gabeko arrisku alorrak eta hobetu daitezkeen prozedurak daudela hautemanen gero. Halako aldaketak Administrazio Kontseiluari proposatuko dizkio, onets ditzan. Era berean, Goi Zuzendaritzari salaketen kanalaren egokitzapenaren eta ezarpenaren berri emango dio.

4.4. Barne Auditoria

Barne Auditoriak ikerketako eta barne kontroleko funtzioak ditu, eta horien artean, honako eginkizunak gauzatu ditu salaketen kanal etikoari dagokionez:

- Salatutako egitateen instrukzioa egitea eta egiaztatzea.
- Giza Baliabideen eta Araudia Betetzeko alorrekin batera, planteatutako kontsultak interpretatzeko eta artatzeko lanetan lankidetzak eskaintzea.

4.5. Giza Baliabideak

Kutxabankeko Giza Baliabideen alorrari dagozkio honakoak:

- Jokabide Kodea eta salaketen kanal etikoa eta bere funtzionamendua behar bezala ezagutarazteko formazioa antolatzea.
- Salaketen kanal etikoaren bidez planteatutako kontsultak interpretatzea eta artatzea, Araudia Betetzeko Funtzioarekin eta Barne Auditoriarekin batera.
- Barne Auditoriak aurkeztutako egitateak aztertzea, hala balegokio, bere eragin eremutik.
- Dagozkion diziplina ekintzak proposatzea, hala balegokio.

4.6. Diziplina Batzordea

Diziplina Batzordeari dagokio Giza Baliabideek ez-betetzeen jakinarazpenen esparruan aurkeztutako txostenak eta zehapen proposamenak aztertzea eta, hala balegokio, lan arloan zehapenak ezartzeko ahala gauzatzea, hitzarmen kolektiboan jasotako hutsegiteak egin izateagatik, bidezkoa balitz.

4.7. Aholkularitza Juridikoa

Dagokion analisian eginda ondorioztatzen baldin bada badaudela salatze modukoak izateko zantzuak dituzten egitateak, Aholkularitza Juridikoak, bere eskuduntzen arabera jardunez dagozkion ekintza penalak gauzatu ditu. Entitate barnean alor hori arduratuko da zeregin horretaz.

5. Prozedura kudeatzea

5.1. *Prestatzea eta kudeatzea.*

Araudia Betetzeko eta Taldearen Kontroleko alorrari dagokio prozedura hau prestatzeko eta egokitzeko ardura, eta Administrazio Kontseiluak onetsi beharko du.

Dokumentu hau 2020ko apirilaren 30ean onetsi du Kutxabankeko Administrazio Kontseiluak.

Araudia Betetzeko alorra arduratuko da dokumentu honetaz, eta bere ardurapeko arloari dagokionez identifikatutako aldaketak proposatuko ditu, bai edukietan eta bai deskribatutako prozeduretan.

Urtero edo aldaketa esanguratsuren bat gertatzen den aldiro, dokumentuaren edukia berrikusi beharko da, araudiek eskatzen dutenarekin bat ote datorren egiaztatzeko.

Alde horretatik, aldaketa esanguratsutzat hartuko dira honakoak:

- Legerian edo araudian egindako aldaketek bere edukiari eragitea.
- Prozedura berriak prestatzea onestea edo lehendik daudenak aldatzea.
- Organo gainbegirale eskudunek, kanpoko auditoreek edo barneko auditoreek dokumentuan aldaketaren bat egitea proposatzea.

Dokumentuan aldaketarik eginez gero, Araudia Betetzeko eta Taldearen Kontrolaren alorrak Administrazio Kontseilura jo beharko du onetsi dezan, eta alde aurretik Kutxabanken Auditoria eta Betetze Batzordeak ontsat eman beharko du.

Horrez gain, Araudia Betetzeko eta Taldearen Kontrolaren alorrak salaketen kanal etikoaren kudeaketari eta funtzionamenduari buruzko informazioa bilduko du Entitatearen Administrazio Kontseiluari aurkezten dizkion urteko txostenetan.

5.2. *Indarrean sartzea*

Dokumentu hau argitaratuz geroztik izango da eragingarria, eta eskumendun pertsona guztiei eska dakieke betetzea.

5.3. *Argitaratzea*

Prozedura hau Entitatearen intranet korporatiboan argitaratu da, behin Administrazio Kontseiluaren onspena jasota, eta eskumendun pertsona guztiak jakinaren gainean daudela joko da, haren berri izan eta bete dezaten.

Era berean, Entitatearen webgunean argitaratu da salaketen kanpoko kanal etikoa arautzen duten printzipioei buruzko laburpena, baita salatze moduko egitateak eta jokabideak jakinarazteko prozedurari buruzkoa.